

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO TOKI ENTITATEEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2006**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskadiko Toki Entitateen gaineko txostena jaulki du, 2006ko ekitaldiari buruzkoa. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Erakunde fiskalizatzaileak EAEn udalen eta udalaz gaindiko entitateen Kontu Orokorrak aztertu ditu, eduki formala eta toki alorraren finantza egoera balio-neurtzen duela. 251 udaletatik 245 udalen Kontuak aztertu dira eta udalaz gaindiko 60etatik, 47renak. Artea, Albiztur, Altzo, Beizama eta Hernialdeko udalek ez dituzte HKEEren aurrean kontuak aurkeztu; halaber, Otxandioko Udalak epez kanpo aurkeztu ditu. Txostenean, gainera, kontuak aurkeztu ez dituzten udalaz gaindiko erakundeak bereizi dira.

Udalen finantza egoerari dagokionez, txostenak azpimarratu du 2006/12/31n erabilitako batez besteko zorpetzea udaleko sarrera arrunten gainean % 3,63koa izan dela. Biztanleko batez besteko zorpetzea 224 eurokoa da. Guztira 72 udalek ez dute zorpetzerik eta 44 udalek, berriz, batez bestekoa gainditzen dute. EAE mailan eta batez besteko terminoetan, 2006ko ekitaldiko sarrera arrunt eta funtzionamendu gastuen zifrekin eskuratzen den aurrezki gordinak lau aldiz zorpetze handiagoa jasateko bide emango luke.

Halaber, termino globaletan, inbertsio garbiak aurreko ekitaldiarekiko % 9ko igoaldia izan duela azaleratu da eta horrek biztanleko 225 euro egiten ditu batez beste.

Presio fiskala (udal zergak, tasak eta bestelako sarrerak) biztanleko euroetan neurtuta 480ra arte igo da, 2005eko ekitaldiarekiko % 11 goitik kokatzen dela.

Udalaz gaindiko erakundeei dagokien zorpetzeak % 6,5 egin du behera aurreko ekitaldiarekiko, 414 milioi euro arte. Zor honen zatirik handiena, % 83, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren jabetzakoa da eta Bilboko Metroa eraikitzeke erabili da.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak txostenean adierazi du entitate hauek ematen dituzten zerbitzuen kostua, uraren hornidura eta saneamendua, garraio eta baso aprobetxamendua salbuetsita, nagusiki horietan partaide diren udaletatik edo beste erakunde batzuetatik jasotako diru-laguntza arrunten bitartez finantzatzen dela eta gogorarazi du, kudeaketa hobetzeko zerbitzuen kostuaren analisia egin behar litzatekeela eta prezioko moldearekin erakunde elkartuei eragin. Jokabide honek zerbitzuen eragimen maila zehazten lagunduko luke, eragiten dituzten mentsak edo superabitak abiaburu hartuta.

Txostenaren atal argigarrietan udalen arteko hainbat alderaketa egin dira, biztanleria geruza eta dagokien Lurralde Historikoaren arabera sailkatuaz. Amaitzeko, txostenari txertatu zaizkion hainbat eranskinetan, udalen eta udalaz gaindiko erakundeen kontuen informazio banakakoa eman da eta Kontu Orokorraren osaerari eta aurkezpenari dagokionez, haiek dituzten obligazio formalak betetzeari buruzkoa.